

GIPUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



35. Informazio Buletina
2009ko Ekaina





NABARMENDU BEHARREKOA

Enpleguaren aldeko konpromiso partekatua: lehen tasun Europarra

Europako Batzordearen Jakinarazpenak adierazten duenez, lehenik eta behin herritarrak dira atzeraldiaren ondorioak jasaten dituztenak: gaur egun Batasunak aurre egin behar dien erronka nagusiak, langabezia-maila altuak saihestea, enpleguaren sorkuntza bultzatzea eta ekonomia berri eta berreskuratzeko eta hazkunde jasangarrirako bidea prestatzea da.

Interesa duten aldean lankidetzaren bidez, politiken arteko koordinazio hobearen bidez eta politika eta neurri egokiak garatu eta aplikatzeko konpromiso partekatuen bidez soilik lortuko da hori guztia: enplegu jasagarriak ekonomikoki sendoak diren jardueretan mantendu eta produkzio-enpleguan sartzen diren pertsonen laguntzea; ahulenei laguntza ematea; eta etorkizuneko enplegu eta kompetentziarako prestatzea.

Lan-denboraren murrizketaren aldi baterako neurriak hainbat estatu kidetan enplegua mantentzeko eraginkorrak izan direla aipatzen du, bereziki diru-sarreraren galeragatik eta prestakuntzarako finantza-laguntzarekin batera aplikatuz gero. Malgurtasun printzipioen atal garrantzitsua da eta kaleratze eta kontratazioetan eta kontratazio berrietan gastu handiak aurrezteko ahalbidetzen die enpresei; horrez gain, enpresaren berezko giza kapitala gal dadin saihestea, eta aldi berean, langileen enplegarritasuna indartzea.

Hezkuntza eta prestakuntza ekonomiaren sektore tradizionalen barne dagoen lan-merkatuaren beharrei lotuta egon behar dira: gazteek, egun dauden enplegu-aukerak aprobetxatzeko kompetentzia egokiak eta bizkor aldatzen ari den merkatura egokitzeko zeharkako kompetentziak behar dituzte.

Informazio gehiago:

[http://eur-](http://eur-lex.europa.eu/Notice.do?mode=dbl&lang=en&lng1=en,es&lng2=bg,cs,da,de,el,en,es,et,fi,fr,hu,it,lt,lv,mt,nl,pl,pt,ro,sk,sl,sv,&val=496174:cs&page=1&hwords=compromiso+compartido+en+favor+del+empleo%7E)

[lex.europa.eu/Notice.do?mode=dbl&lang=en&lng1=en,es&lng2=bg,cs,da,de,el,en,es,et,fi,fr,hu,it,lt,lv,mt,nl,pl,pt,ro,sk,sl,sv,&val=496174:cs&page=1&hwords=compromiso+compartido+en+favor+del+empleo%7E](http://eur-lex.europa.eu/Notice.do?mode=dbl&lang=en&lng1=en,es&lng2=bg,cs,da,de,el,en,es,et,fi,fr,hu,it,lt,lv,mt,nl,pl,pt,ro,sk,sl,sv,&val=496174:cs&page=1&hwords=compromiso+compartido+en+favor+del+empleo%7E)



Arquivia proiektua, SUDOE programak onartutako 45 proiektuen artean

Europako Hego-Mendebaldeko Esparruaren Lurralde Lankidetzarako 2007-2013 Programaren (SUDOE) helburua, FEDERen bidez nazioz haraindiko proiektuen aldi bereko finantzaketaz baliatuz, eremu horren eskualde garapena laguntzea da; eskualde espainiar eta frantziarrak, nola Frantziako hegoaldekoak hautagarriak dira.

SUDOE programaren proiektuen lehen deialdian, aurkeztutako 256 hautagaitzetatik 45 proiektu onartu ziren. Hiri-garapen jasangarriari lotutako 4. mailako lehentasunaren baitan, ekainaren 4an ospatutako Programazio Batzordearen bileran Arquivia proiektua onetsi zen. Proiektuaren onuradun nagusia Bidasoa Activa da, eta FEDERen 540.000 euroko (guztizko gastuaren % 75) laguntza jasoko du.

Proiektuaren helburu nagusia, dauden osagarritasunen lankidetzeta eta ustiapenaren bidez, Europako hego-mendebaldean Erdi Aroko bere kultura ondareari balioa emango dion turismo-eta kultura-eskaintza berri baten berrikuntza-egitura egonkor bat sortzea da. Hondarribiako hiriarekin batera, Espainia eta Portugalgo hamar hirik parte hartzen dute proiektuan, Erdi Aroko hiri- eta hiribildu-sarearen markoaren barruan.

Informazio gehiago:

<http://www.interreg-sudoe.eu/ESP/f/105/74/General/Noticias/Resultados-Comite-de-Programacion--Madrid-40609>

Europar Batasunaren lehendakaritza suediarra

Uztailaren 1ean, Europar Batasuneko Batzordearen txandakako lehendakaritza hartu zuen Suediak; urte honetako bigarren sei hilekoan barrena beteko du.

Lehendakaritzaren lehentasunak susperraldi ekonomikoaren bultzadan oinarritzen dira, krisiari modu eraginkorrean aurre eginez, ekonomiaren gaineko eta finantzen sektorean eta lan-merkatuaren baitan baterako ekintzaren bidez. Halaber, krisiak hazkundera eta enpleguan izan dituen ondorio negatiboak arintzeko.

Halaber, egungo erronka nagusia klima-aldaketaren mehatxua eta haren kontra borrokatzea dela adierazi du. Honela, datorren abenduan Kopenhagen ospatuko den Nazioarteko Konferentzian klima-aldaketaren inguruko akordio berri bat bultzatuko du.

Informazio gehiago:

<http://www.se2009.eu/en/>



KOHESIO-POLITIKA

Ekonomia eta gizarte kohesioaren inguruko txostena

Europako ekonomia eta gizarte kohesioaren egoeraren seigarren txostena sormenean eta berrikuntzan oinarritzen da, biak baitira Batasuna egungo krisi ekonomikotik arinago eta indartuago ateratzen lagun dezaketenak.

Txostenak baieztatzen duenez, sormenak eta berrikuntzak funtsezko eskualde-dimentsioa dute, eta berrikuntza gero eta konplexuagoa (eredu irekiagoak, prozesu berritzaileak eta xurgapenak eta egokitzapenak betetzen duten papera) dela kontuan hartuta, eskualde guztietan berrikuntza sustatuko duen politika bakarra gauzatzea ezinezkoa dela azpimarratu du.

Eskualdeek beren berrikuntza-sistema propioak sor ditzaten eta ezagutza eta teknologia eraginkortasun handiagoz erabil daitezzen, eskualdeek beren tokiko ezagutzetara jo behar dutela gehitu du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/interim6/com_2009_295_es.pdf

Europako lurralde-kohesioaren eta lurralde-gobernantzaren inguruko liburu berdea

Europako lurralde-kohesioari buruzko Liburu Berdearen inguruan Eskualdeetako Lantaldearen irizpenak jasotzen dituen proposamenen artean, lurralde-gobernantza hobetzera bideratutakoak aipa daitezke; gobernantzaren kalitatea hobetzeko behararen bidez, bereziki lurralde-dimentsioari dagokionez, herritarrarengandik ahalik eta hurbilen dagoen mailan, politika publikoen integrazio eza konpontzeko xedearekin.

Eta erakundeen arteko harremanez haratago, Batzordeak gobernu-maila desberdinen arteko lankidetzak bertikala lagunduko duten tresnak zehaztea egokia dela uste du. Halaber, estrategia-helburu komunaren definizioa erdiesteko, maila anitzeko gobernantza indartzearen alde dago, maila anitzeko benetako gobernantzak betearazpen eta jarraipen faseetan ere lankidetzak eskatzen duela azpimarratuz.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:120:0023:0028:ES:PDF>



Itsaso Baltikoko eskualdearen garapena bultzatzeko estrategia

Batasunak, lehen aldiz, Europako makroeskualde batean, Itsaso Baltikoko makroeskualdean (zortzi estatu kidek eta Errusiak inguratutakoa), estrategia zabala garatu du. Estrategia horrek antzeko planteamenduak bultzatzen ditu bestelako eremutan, esaterako, Mediterraneoan edo Danubioren arroan.

Komunikazioaren forma eta laurogei proiektuko zerrenda duen ekintza-plana ditu estrategiak; horietako batzuk jada abian jarri dira. Honako hauek dira strategiaren lau oinarriak: Europako zati hau ingurumenaren aldetik jasagarria izatea (esaterako, hondakin-urak prozesatuz), aberatsa izatea (esaterako, enpresa txiki eta ertainen berrikuntza sustatuz), iristeko erraza eta erakargarria izatea (esaterako, garraio-komunikazioak hobetuz) eta segurua izatea (esaterako, ezbeharren kasuan erantzun hobea eskainiz).

2007 eta 2013 artean, Itsaso Baltikoko Eskualdeak inbertsiorako 50.000 milioi euro baino gehiagoko diru-laguntza jasoko du, kohesio-politikaren bidez.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperation/baltic/





KOMUNITATEKO POLITIKAK

Energia berriztagarrien erabileraren sustapena

Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzendaritzak iturri berriztagarrietatik eratorritako energia sustatzeko esparru komuna ezarri du.

Eta ondorengoak ezarri ditu nahitaezko helburu gisa: energia kontsumoan iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren % 20ko mailara iristea eta 2020rako Erkidegoko garraiorako erregaien kontsumoan iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren % 10ko mailara iristea.

Iturri berriztagarrietatik eratorritako energia, iturri berriztagarri ez-fosiletatik datorren energia gisa definitzen du, hau da, energia eolikoa, eguzki-energia, aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa eta ozeanikoa, hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, araztegi-plantetako gasak eta biogasa.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2009:140:0016:0062:ES:PDF>

Garraio-sistemaren etorkizuna

“Etorkizun jasagarria garraioentzat: sistema bateratu, teknologiko eta erabilerraz baterantz” Batzordearen Komunikazioak 2020ari begira garraio-sistemaren etorkizunari buruz egindako hausnarketaren emaitzak laburbiltzen ditu, eta 2010erako aurreikusitako Liburu Zuriaren proposamen zehatzak egiteko eztabaida sustatzen du.

Joerak eta erronkak, garraio jasagarri bateranzko helburu politikoak eta garatu beharreko politikak biltzen ditu.

Testuinguru horretan, Komunikazio honek abian jarritako kontsultan irailaren 30a baino lehen parte hartzera (trenfuture-of-transport@ec.europa.eu) deitzen ditu interesa duten alde guztiak.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0279:FIN:ES:PDF>



Ingurumeneko politika eta bere berrikuspena

Europako Batzordeko komunikazioak adierazten duenez, Europak baliabide gutxi kontsumitu eta karbono gutxi isuriko duen ekonomia baterantz bizkorrago aurrera egiteko beharra indartzen dute erronka europarrek (lehengaien, elikagaien eta energiaren prezioen gorabeherak, gero eta handiagoak diren ingurumen-presioak eta aurrekaririk ez duen krisi ekonomikoa); baina, era berean, hori lortzeko aukerak eskaintzen dituzte.

Krisiak gure ekonomia "ekologizatu" eta karbono-isurtze txikiko eta baliabideen kontsumo baxuko hazkunde baten oinarriak ezartzeko aukera paregabea eskaintzen duela aipatzen du.

Eta, halaber, klima-aldaketaren ondorioak nabaritzen hasiak direla, itsas maila igotzen ari dela eta muturreko fenomenoek maiztasuna areagotzen ari dela adierazten du. Zentzu honetan, Europar Batasuna munduko isurtzeen % 10,5 ingururen erantzulea da, eta bere ahaleginak ez dira klima-aldaketa arintzeko nahikoak izango, nazioarte-mailako neurri gehiago hartzen ez badira.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0304:FIN:ES:PDF>

2011: boluntariotzaren urte europarra

2011 urtea boluntariotzaren urte europarra izan dadin proposatu du Europako Batzordeak, Europako gizarte eta ekonomia garapenerako indar handia baitu.

Eta ondorengo helburuei arreta jarritz: boluntariotzaren garapenerako baldintza egokiak lortzeko lan egitea, erakundeen bitartekoak eta kalitatea bultzatzea, haien jarduerak saritu eta aintzat hartzea, eta haien erabilgarritasun eta balioaren inguruan herritarrak sentsibilizatzea.

Jarduerak komunikazioan eta sentsibilizazioan oinarrituko dira: hitzaldiak, mintegiak, esperientzien trukaketa eta dokumentuan argitalpena.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/09/862&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>



e-LIBURUTEGIA

Finantza publikoei buruzko Europako batzordearen 2009ko txostena

Estatu kideen aurrekontu-politikak eta krisi ekonomiko eta finantzarioari emandako erantzuna aztertzen ditu txostenak. Egonkortzaile automatikoak kontuan hartuta, 2009-2010ean aurrekontu-politikak BPG % 5aren inguruan berriabiatzen lagunduko duela adierazten du.

Halaber, aurrekontu-markoak indartuko dituen, zahartzeari lotutako gastuak erreformatuko dituen eta susperraldirako, erronka hauei aurre egiteko eta kontsumitzaileen, enpresen eta finantza-merkatuen konfiantza berreskuratzeko saneatze-neurriak planteatuko dituen krisitik ateratzeko estrategia aurreikustea beharrezkoa dela dio.

2009an, Batasuneko estatuek BPGaren % 1,1eko zenbatekoarekin aurrekontu-berrabiarako neurriak bultzatu dituzte; azpimarratzekoak dira Espainia (% 2,3), Austria (% 1,8) eta Finlandia (% 1,7).

Finantza sektoreko esku-hartzeen aurrekontuen kostu zuzenarekin batera, atzeraldiari lotutako gero eta handiagoak diren aurrekontu-defizitek administrazioen zorpetze-tasa areagotzen laguntzen dute. Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko zor publikoa handitu egingo da, 2007ko BPGaren % 60an baino zertxobait baxuagoa zen batez bestekotik, 2010eko % 80 ingurura.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/publication15390_en.pdf

Energia berriztagarrien sektorea eta enplegua eta aberastasunaren sorkuntza

Europako Batzordearen azterlanaren arabera, enplegu-kopurua 2,8 milioi da, energia berriztagarrietatik datorren kuotaren % 20aren erkidegoaren helburua lortu ondoren. Eta aberastasunari dagokionez, BPGari % 1,1ean lagunduko lioke.

Sektoreari eta teknologia berritzaileen bultzadari, hala nola, fotovoltaikoa, itsasoko energia eolikoa, eguzkiaren elektrizitate termikoa eta bigarren belaunaldiko bioerregaiak, lotutako aukerak aprobetxatzea ahalbidetuko duten politika aktiboagoak bultzatzeko beharra azpimarratzen du azterlanak.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/energy/renewables/studies/doc/renewables/2009_employ_res_summary.pdf



Panorama, sormenari eta berrikuntzari buruzkoa

Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren hileroko aldizkariak sormenaren eta berrikuntzaren garrantzia azpimarratzen du, Europa aberats eta osasuntsua lortzeko bitarteko gisa. Hain zuzen ere, horixe bera aitortu du Batzordeak berak 2009 urtea Sormenaren eta Berrikuntzaren Urte gisa izendatuz.

Urte honetan zehar, Europaren indar sortzailea eta berritzailea areagotzeko egin behar denari buruzko eztabaida sustatu du Batzordeak; halaber, sormenak eta berrikuntzak pertsonaren, gizartearen eta ekonomiaren garapenerako giltzarri gisa duten garrantziaz herritarrak sentsibilizatzeko eztabaida bultzatu du.

Eta argitalpenak jasotzen duen moduan, eztabaidak hainbat galdera jartzen ditu mahai gainean. Nola definitu sormena, berrikuntza eta kultura hitz giltzarriak? Nola jartzen dira harremanetan euren artean? Kulturak eta pentsamendu sortzaileak nola bultzatu dezakete berrikuntza? Artea eta enpresa; ura eta olio bezalakoak al dira, edo batak beste elikatu al dezake? Nola lagun dezakegu jendea pentsalari sortzaile eta berritzaile bilakatzeko duten indarra garatzen? Zein da hezkuntza eta ikaskuntza etengabearen papera, gure herriak dinamikoago, beren buruaz seguruago eta sortzaileago izan daitezen?

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag29/mag29_es.pdf





ADIERAZLEAK

Berrikuntzaren adierazle Europarrak

2008 urteari dagokion European Innovation Scoreboard-en (EIS) edizioak Europar Batasuneko estatu kideen, nola beste herrialde garatu batzuen berrikuntzaren emaitzak aztertu ditu, 29 adierazleren bidez.

Horiek oinarritzat hartuz, erkidegoko herrialdeak lau taldetan banatu ditu. Buru diren herrialdeen taldean, Suedia, Finlandia, Alemania, Danimarka eta Erresuma Batua daude; horien atzetik, Austria, Irlanda, Luxenburgo, Belgika, Frantzia eta Holanda daude.

Txostenaren arabera, Europar Batasunak aurrera egin du berrikuntzaren alorrean, banda zabala eta arrisku-kapitalaren inbertsioen alorretan hazkunde nabarmena azpimarratuz. Halaber, zientzia eta ingeniarietan graduatutakoen kopurua areagotu egin da.

Informazio gehiago:

http://www.proinno-europe.eu/admin/uploaded_documents/EIS2008_Final_report-pv.pdf

Enplegu-tasa Gipuzkoan eta Europar Batasunean

Gipuzkoako 15 eta 64 urte arteko biztanleen enplegu-tasa Europar Batasunaren tasa baino 4,1 portzentaje-puntu handiagoa zen 2008an, Eustatek landutako informazioaren arabera.

Gipuzkoako tasa % 70 zen, eta EB-27-rena, berriz, % 65,9. Gizonezkoen artean (% 77,9), Gipuzkoako tasaren desberdintasuna 7,1 portzentaje-puntura iritsi zen; emakumezkoen artean (% 61,9), berriz, 2,8 portzentaje-puntu izan zen.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/ci_ci/estadisticas/idioma_e/tema_131/opt_0/tipo_1/ti_Jarduera_okupazioa_eta_langabezia/temas.html